



SENDERO DE LEURTZA SL-NA 7

DISTANTZIA 3,5 Km.

DESNIBELA 60 m.

DIFICULTAD Erraza

HASIERA Leurtzako
Informazio etxola

3,5 km-ko ibilbidea, 60 metroko desnibelarekin. Bideak Leurtzako urtegiak inguratzen ditu. Zuriz eta berdez baliztua, ez du zailtasunik, baina zatiren batean irristatzeko arriskua egon daiteke hezetasunarengatik. Gomendatzen da hemen markatzen den norabidean egitea, makilekin markatutako interes-puntuak jarraituz.

Hasiera (PK 0,000): Leurtzako Informazio etxola: Bidea baso-igel gorriaren eskulturatik hasten da.

- **1. PUNTUA / BASO-IGEL GORRIAREN ESKULTURA:** Habitat honen sinboloa da anfibio hau, bertan aurkitzen ditu ezinbestekoak zaizkion bi elementuak: batetik, geldo edo putzuetan dagoen ura edota hezegune txikiak, izan ere, bertan egiten dute anfibio hauek neguko errunaldia; bestetik, itzaletan dauden pagadi hezeak beharrezkoak dituzte elikatze eta babesteko urtean zehar (informazio gehiago "Leurtza, lau urtaroak" atalean).

PR-NA 102 bidearen eta egokitutako bidearen balizekin bat eginez, aparkalekuaren zabalgunea gurutzatuko dugu mahaiak eta erretegiak dauden espazioa ezkerrean utziko dugu, bide zabal eta lautik joanen gara iturriraino eta komunaren etxolaraino. Bertatik zati interesgarri bat hasten da, basotik zehar doana, eskuinean pago gazteak eta eskuinean pagadi anitz bat daude.

Bidebanatzea (PK 0,220): Ezkerrera joanen gara goiko urtegiara (egokitutako bidea eta PR-NA 102 bideak jarraituz). Aurrera joko dugu, pista nagusia jarraituz; ezkerrean harizti txiki bat ikus dezakegu, bertan, habi-kutxa ikus ditzakegu.

- **2. PUNTUA / HARITZAK ETA SAGUZARRENDAKO HABI-KUTXAK:** Pagoez eta adierazleez inguratua, haritz hauek argia bilatzeko hazi egiten dira. Haritz hauen adarretatik zintzilik, saguzarrentzako zenbait habi-kutxa ikusten ahal ditugu: XX. mendean zehar pago motz zaharrak pago zuzenengatik aldatu ziren, azken hauek, ordea, ez zuten saguzarrak babesteko tokirik, honek animali hauen habitatean aldaketa garrantzitsua suposatu zuen. Habi-kutxa hauek paratu zirenean saguzarren habitata hobetu nahi izan zen eta Leurtzan duten presentzia handitu.

Eskuinean pagadi gazte baten itxiera ikusten ahal dugu.

- **3. PUNTUA / PAGADI GAZTEA:** Urtegiak eraiki eta gero, eta pago zahar eta adartsuak eta ikatza egiteko erabiltzen ziren haritz motzak (zenbait 2. puntutik hurbil ikusten ahal dira eta urtegiak inguratzen duten larreetan) pago luzeengatik aldatu ziren, pagoak argiaren bila hazten dira. Duela urte batzuk hemendik basoaren %50 moztu zen (gutxitan mozten da dena) eta azienda bertara ez sartzeko hesi bat paratu zen, arbola gazteek altuera minimo bat izan arte. Orduan kenduko da hesia, azienda berriz sartzeko.

Pista nagusia jarraituz, pago polit baten ondoan, goiko urtegia ikusten ahal da; urtegiaren ertza belar fin batek eta kamamilak estaltzen ditu. Urtegiaren maila baxua denean, lehenago bertan zeuden arbolen motzondoak ikusten ahal ditugu. Pistatik aurrera eginen dugu urtegia inguratuz.

Bidebanatzea (PK 0,950): Eskuinean, Uztakortako lepora doan pista ikusiko dugu, baina zuzen jarraituko dugu pista nagusitik, metro gutxitara plubiometro batera helduko gara...

- **4. PUNTUA / PLUBIOMETROA:** Leurtza Kantaurialdeko zonalderik euritsuenetako bat da. Mendi hauek Kantauri eta Mediterraneo itsasoan isurialdeak banatzen dituzte eta bertan geratzen dira Kantauri itsasotik iristen diren ekaitzak. Prezipitazioak, haietako zenbait elur moduan, urtean 2.000l m²-ko kopurua aise gainditzen dute. Leurtza oso espazio hezea da.

Errekaren gaineko pasabidea (PK 1,070): Goiko urtegiaren hegoaldeko ertza. Basoko pista batean zehar hasten da igoera, pista lurrezkoa da eta uraren eraginez hondatua dago. 50 metrora igotzen goazen pista utzi eta ezkerrera jaitsiko gara urtegia inguratzen duen bide batetik. Bidea, antzinako baso bidea zena, garai batean ikatza egiteko plaza baten erditik pasatzen da, hori lurrean dagoen perfil beltzean ikus dezakegu.

Bidebanatzea (PK 1,570): Bidea Zumardenako lepora doan bidean bukatzen da (eskuinean PR balizak, horiak eta zuriak); metro gutxira Leurtzako menhir eroria dago. Ezkerrean mugarri handi bat dago...

- **5. PUNTUA / MUGARRIA:** Urrotz ("V") eta Beintza-Labaien ("L") mugatzen ditu, zenbakitua dago eta goiko aldean udalerrri bakoitzaren mugatzea du grabatua eta margotua. Zumardenako lepora igotzen den bidea jarraituta, beste zenbait mugarri ikus ditzakegu, tartean, 1781eko bat. Ia populaziorik bizi ez zen lurralde batean mugarriak ikusteak adierazten du herri-lurren ustiapenak zuen garrantzia.

Aurrera eginen dugu, baliza zuri, hori eta berdeak jarraituz, urtegia inguratuz eta jaitsiera arin batetik Errekabeltza erreka gurutzatuko dugu pasabidetik, erreka hau goiko urtegiara doa. Uhar txiki honek bi bitxikeri ditu: lehena izena, izan ere, kareharriak urarekin kontaktuan jartzean hartzen duen koloreari erreferentzia eginez; bigarrena, erreka ura metro gutxi batzuk gorago dagoen iturburutik heldu da, bertatik ateratzen da Erlaingo Harriko (ikus 7. puntua) sistema karstikoan pilatzen den ura. Urtegia inguratzen duen bidetik jarraituko dugu eta iturri baten ondoan eta hesi baten hondarrak eskuinera utzita...

- **6. PUNTUA / HARIZTIA MODU NATURALEAN:** Duela zenbait urte zati honetako arbolen erdiak moztu ziren. Basoaren zati hau modu naturalean garatzeko (arbolak landatu gabe) hesi batekin itxi zen animaliak ez sartzeko. Emaizta bistakoa da: tamaina eta dentsitate ezberdinetako hariztia, gaztea, sasitza eta adar asko dituen, animalien presentzia urria dagoelako.

Goiko urtegiaren pareta (PK 2,075) eta bidebanatzea: Ezkerrean urtegiaren pareta ikus dezakegu, bertan elkartzen dira PR bidea eta mugikortasun edo ikusmen urria duten pertsonentzako egokitutako bidea. Aurrera egin behar dugun arren, merezi du urtegiaren paretaren erdiraino joatea, bertatik ikusiko dugu Leurtzako eta bere ingurune bista bikaina.

- **7. PUNTUA / LEURTZAKO PANORAMIKA:** Azpiko urtegiari begira, larreak (askotan zaldiekin) eta landaredia (haritzak, pagoak, iparraldeko elorri zuria eta gorosti handiak) ikus ditzakegu. Ezkerrean, goiko aldean, Munazorrotz mendiaren larreak ikus ditzakegu, bertan Urrotz eta Beintza-Labaiengo abereak ibiltzen dira. Parean, azpiko urtegiaren pareta, Atlantikotik datozen euritsuei aurrez aurre begira dago. Goiko urtegirantz joanda, pagoez betetako larreak ikus ditzakegu, pagadi trinkoagoak daude mozketarik egon ez den tokietan. Parean Erlaingo Harria ikusten ahal dugu, mendi hau basoez estalita dago eta tontorrean kareharria ikus daiteke.

Erlaingo Harria Leurtzako "hirugarren urtegia" da, izan ere, ura menditik iragazi egiten da eta mendiaren azpiko aldetik ateratzen da, Errekabeltza erreka txikian.

Aurrera eginen dugu azpiko urtegia inguratuz. Bidea banatu egiten da, ezkerrean egokitutako bidea batu egiten da; aurrera eginen dugu bide nagusia jarraituz. Jaitsiera labur baten ondoren, egokitutako bidearekin bat eginen dugu. Igoera motz bat hasiko dugu, eskuinean urtegiak eraikitzekeko sortu zen harrobiaren zuloa ikusiko dugu; ezkerrean urtegia eta beste aldean, Leurtzako larreak. Bidea zonalde ospel batean sartzen da berriz, bertan orbel asko dago eta eskuinean kareharria ikusten ahal da.

- **8. PUNTUA ARKAITZAREN KARSTIFIKAZIOA:** Kareharria urarekin disolbatu egiten da eta denboraren poderioz, gainazalean zenbait zulo eta pitzadura agertzen dira. Horrela, gainazalean urik ez dagoen arren, barruan kopuru handi bat egon daiteke (7. puntuan azaldu den moduan). Zenbait zulo eta pitzaduratan hezetasuna eta lurra egon daitezke, eta, ondorioz, landare eta animalia txikien habitatak dira.

Bidebanatzea (PK 2,880): Aurrez aurre, pistak zuzen jarraitzen du; ezkerrean jaitsiko gara, hormigoizko bidetik azpiko urtegiaren dikerako norabidean. Puntu horretara heldu baino lehenago, bidearen ezkerrean eta zabalgunean batean ikus daitezke...

- **9. PUNTUA / IKATZA EGITEKO PLAZAK:** Bidearen ezkerrean, 5-6 metroko zapaldea borobil batzuk daude, espazio hauetan, garai batean, ikatza egiten zuten, egur-ikatza, ikatz mota honek berotzeko gaitasun handia du eta erraz garraiatzen ahal da. Jarduera hau XX. mendearen erdira arte egin zen Leurtzan: orduan basoan arbola motzak zeuden, enborrek tamaina handia zuten eta adarrak 3 edo 4 metroko altueran kimatzen ziren. Ikazkinek txondorra zaindu eta elikatu behar izaten zuten zenbait egunez, bestela erre edo itotzen zelako. Ikatza ateratzen zenean, mandoetan garraiatzen zen. Lurrean ikatz begetalaren aztarnak aurkitzen ahal dira.

Ikatza egiteko plaza baten gainean sortutako bihurtze itxi bat pasa eta gero, bideak azpiko urtegiaren dikea pasatzen du eta malda bat igotzen du.

Leurtzako errepidea (PK 3,140) eta urtegiko etxea: Etxe hau urtegia eraiki zenean erabili zen. Asfaltatutako errepidetik jarraituko dugu, Martuzeneko Bordara heldu arte, bidearen ezkerrean...

- **10. PUNTUA / LARREAK ETA AZIENDARENTZAKO BORDAK:** Leurtzako abeltzaintza larre itxietan antolatzen da. Larreetako belarra moztu da eta negurako gordetzen da (gaur egun, plastikoz inguratutako pilotatan gordetzen da). Bordak harrizko eraikuntzak dira, teilatua bi isurikoak dira eta azienda bertara eramaten da belarra moztu eta gero. Larre itxiez gain, larre irekiekin osatzen da abeltzaintzako jarduera, larre hauetan iratzeak daude, hauek irailean moztu dira eta animaliek horien gainean lo egiten dute. Gainera animalien gorotzarekin nahastuta ongarria sortzen da. Bordaren izenak etxe nagusiaren zein den adierazten du (adibidez, Martuzeneko Borda, Urrozko Martuzenea etxearen borda da).

Informazio etxola (PK 3,500): Asfaltatutako bidea jarraituz, igelaren eskulturara helduko gara eta Leurtzako informazio etxolara, ibilbidearen hasierako puntura.